



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2016IPLE0011

Eguna: 2016-11-19

Ordua: 09:30 – 12:25

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Jesus M ^a Santos Anabitarte	EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües (19. aztergaian joan da)	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBildu
- Ander Goicoechea Ocariz	EHBildu
- Ainara Vázquez Martinez	EHBildu
- Iker Goñi Salaberria	EHBildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHBildu
- Mikel Durán Gonzalo	Euskadiko Sozialistak

Bertaratu ez direnak

Bertaratutako udal teknikariak

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea (12. aztergaian joan da)

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N ^o	ORDEN DEL DIA
2016ko urriaren 1eko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 1 de octubre de 2016.
Hondakin bilketa-sistema. Astigarragako Udala eta San Marko Mankomunitatearen arteko lankidetzahitzarmenaren aldaketa.	2	Sistema de recogida de residuos. Modificación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la Mancomunidad de San Marcos.
Lanpostu zerrenda eta plantila: alegazioak erantzun eta behin betiko	3	RPT y plantilla: contestación alegaciones y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

onartzea.		aprobación definitiva.
Kale izendegiaren aldaketa	4	Modificación del callejero.
2017ko taxi tarifen onarpena	5	Aprobar las tarifas del taxi del 2017
1994. urtean saldutako lursaila eskrituratu ahal izateko Alkatea baimentzea.	6	Autorizar al Alcalde para la firma de las escrituras de la venta de terrenos efectuada en el año 1994.
Interreg programa	7	Programa interreg.
Kreditu transferentzia: alkatearen 1030/2016 dekretuaren berri ematea.	8	Transferencia de créditos: Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1030/2016.
Kreditu transferentzia: kontu-hartzailearen urriaren 17ko txostenaren berri ematea.	9	Transferencia de créditos: Dar cuenta del informe del interventor de fecha 17 de octubre.
Kreditu aldaketa	10	Modificación de créditos
Zerga fiskalak: alegazioak erantzun eta behin betiko onartzea.	11	Ordenanzas Fiscales: contestación alegaciones y aprobación definitiva.
Parte-hartze ordenantza urratu izanaren kexa.	12	Queja sobre la infracción de la ordenanza de participación ciudadana.
Sasoi-Sport. Kontratu luzapena onartzea.	13	Sasoi-Sport. Aprobación de la prórroga del contrato.
Tokiko Gobernu Batzarreko kideak eta eskuordetutako eskumenak aldatzeari buruzko Alkatearen 1136/2016 dekretuaren berri ematea.	14	Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1136/2016 sobre modificación de los miembros de la Junta de Gobierno Local, así como de las competencias delegadas.
2. alkate orde izendatzeari buruzko Alkatearen 1137/2016 dekretuaren berri ematea.	15	Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1137/2016 sobre nombramiento del 2. teniente de alcalde.
Alkatearen eskumenekoak diren hainbat kontratuen kontratazioa udal osoko bilkurari eskuordetzea.	16	Delegar en el pleno la contratación de algunos contratos de competencia del alcalde.
EHBilduren mozioa: aldiriko tren geltokiaren aldekoa.	17	Moción de EHBildu: a favor de parada del tren de cercanías.
EHBilduren mozioa: astigarragatarren etorkizunaren aldeko hainbat ekimen bideratzeko.	18	Moción de EHBildu: llevar a cabo iniciativas para el futuro de los astigarragatarros.
EAJ-PNV taldearen mozioa: 4591/10 kereilari babesa emateko.	19	Moción de EAJ-PNV: apoyo a la querrela 4591/10.
EHBildu taldearen mozioa: 4591/10 kereilari babesa emateko.	20	Moción de EHBildu: apoyo a la querrela 4591/10.
“Juan Luis Agirreren lagunak” aurkeztutako mozioa: elkartasuna eta babesa.	21	Moción de “Juan Luis Agirreren lagunak”: solidaridad y apoyo.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

“Gure esku dago” mozioa	22	Moción: Gure esku dago
Udal talde guztien mozio bateratua: herriko harrobi eta meategiak.	23	Moción conjunta de todos los grupos municipales: canteras y minas instaladas en el municipio.
Deklarazio instituzionala: emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna.	24	Declaración institucional: día internacional contra la violencia hacia las mujeres.
Udal talde guztien mozio bateratua: Euskaren eguna	25	Moción conjunta de todos los grupos municipales: Euskararen eguna (día del euskara).
Informazio, galdera eta eskariak	26	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

Gai zerrendako 13. gaia aurretik dagokion batzorde informatzailean aztertu gabe dagoenez, gai zerrendan sartzeko berrestea eskatzen da, aho batez onartzen dena.

1.- 2016ko urriaren 1eko akta onartzea.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta adierazi aktaren 6 eta 7 orrialdeetan, Erroka lehiaketaren aztergaietan, ez dela argi gelditzen berak ez zuela egin oposizioak aurpegiratu, eta nahitan egin zuela dirudiela, eta ez dela horrela, berak ez baitzuen ezer egin.

Akta aho batez onartu da.

2.- Hondakin bilketa-sistema. Astigarragako Udala eta San Marko Mankomunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa.

Alkateak Zorione zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehenengo atala.- 2016ko urriaren 1ean udal osoko bilkurak onartutako lankidetzaren

Dado que el punto 13 del orden del día no ha sido previamente informado en la respectiva comisión informativa, se somete a ratificar su inclusión en el orden del día, aprobándose por unanimidad.

1.- Aprobación del acta de 1 de octubre de 2016

Toma la palabra la concejala Nerea y señala que en las páginas 6 y 7 del acta, en el punto referente a la competición Erroka, no queda claro que ella no hizo lo que la oposición le reprocha, y que parece que lo hizo aposta cuando eso no es así, ya que ella no hizo nada.

El acta se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Sistema de recogida de residuos. Modificación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la Mancomunidad de San Marcos.

El alcalde le cede la palabra a la concejal Zorione, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Apartado primero.- Modificar los apartados



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

hitzarmenaren 1, 5.3 eta 7 atalak eta II. Eranskina aldatzea, eta horientzako testu berri hau onartzea:

“LEHENENGOA.- Helburua edo xedea.

Lankidetzeta-hitzarmen honen helburua edo xedea da; Astigarragako hiri-hondakinen bilketa San Marko Mankomunitatearen esku uztea, beti ere, gutxienez %70eko Hondakin gaikako portzentai-tasak lortzeko..”

BOSGARRENA.- San Marko Mankomunitateak hartzen dituen beste konpromiso batzuk

“5.3.- Hondakin gaikako portzentaiak %70ean lortzeko beharrezko baliabide eta neurrien inplementazioan elkarlanean arituko da bere eskumenen arabera.”

“ZAZPIGARRENA.- Zerbitzuaren ordaina

1.- ERREFUSAREN ATALA: Errefus atalaren jasoketari dagokion urteko gastua gehienez 80.000 eurokoa izango da.

Astigarragako Udalak ekarpenak 30 eguneko epean ordainduko ditu.

2.- GAINERAKO HONDAKIN ATALAK: Aurreko parrafoetan zehaztutako gainerako hondakin atalen jasoketari dagokion urteko aurrekontu estimazioa 100.000 eurokoa da.

Era berean, Ecoembes eta birziklagarriak diren material salmentagatik San Marko Mankomunitateak lortutako urteko diru-sarrerak gutxigorabehera 100.000 eurokoak dira.”

“II. Eranskina – Bilketa ezarpenerako kronograma

- Hitzarmena sinatu ondoren,

1, 5.3 y 7 y el anexo II del convenio aprobado en la sesión plenaria del 1 de octubre de 2016, y aprobar para los mismos el siguiente texto:

“UNO.- Objeto.

Este convenio de colaboración tiene el siguiente objeto: dejar en manos de la Mancomunidad de San Marcos la recogida de residuos urbanos de Astigarraga, siempre y cuando esté encaminada a lograr como mínimo el 70% de la tasa de recogida selectiva.”

BOSGARRENA.- San Marko Mankomunitateak hartzen dituen beste konpromiso batzuk

“5.3.- Colaborará en función de sus competencias en la implementación de todas las medidas y recursos necesarios para lograr que los porcentajes de la recogida selectiva lleguen al 70%.”

“SIETE.- Abono del servicio

1.- FRACCIÓN RECHAZO: El gasto máximo anual por la recogida de la fracción resto ascenderá a 80.000 euros.

El Ayuntamiento de Astigarraga abonará sus aportaciones en un plazo de 30 días-

2.- RESTO DE LAS FRACCIONES DE RESIDUOS: En cuanto a la recogida del resto de las fracciones definidas en párrafos anteriores, la estimación presupuestaria anual es de 100.000,- euros.

Del mismo modo, por la venta de materiales reciclables y Ecoembes, los ingresos anuales obtenidos por la Mancomunidad de San Marcos serán de aproximadamente 100.000 euros.”

“Anexo II – Cronograma para la implantación de la recogida

- Una vez firmado el convenio, el servicio



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

papera/kartoia eta ontzi arinen bilketa zerbitzua 15 eguneko epean hasiko da ematen herrian.

- Hilabeteko epean organikoa jasotzen hasiko da kaleko edukiontzietatik.

- Hitzarmena sinatu eta bost hilabete bete baino lehen hasiko da errefusa eta bolumen handiko bilketa.”

Bigarren atala.- Lankidetzaz-hitzarmenean udalak konpromiso berri bat hartzea, hain zuzen, 6.9 atala gehitzea:

“SEIGARRENA.- Astigarragako Udalak hartzen dituen konpromisoak.

6.9.- Hondakin gaikako portzentaiak %70ean lortzeko beharrezko baliabide eta neurriak hartuko ditu.”

Hirugarren atala.- Lankidetzaz-hitzarmenetik 5.1 atala, I. eranskina eta subrogazioari buruzko aipamen oro kentzea.

Laugarren atala.- Garbitaniari enpresari jakinaraztea aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren egiaztatu dela kasu jakin honetan langileek subrogazio-eskubiderik ez dutela, eta txosten juridikoaren kopia bat helaraztea.

Bosgarren atala.- Akordio honen berri ematea San Marko Mankomunitateari eta Gabitania enpresari.

Bestalde, adierazi du sistema berria mailaka ezarrikoenez, beste puntu bat gehiago onartu behar dela:

“Bosgarren atala.- Garbitania enpresa publikoari jakinaraztea hitzarmenean onartutako bilketa ezarpenerako kronograma (I. eranskina), eta eskatzea, eranskin horretako epean arabera San Marko Mankomunitateak zerbitzu osoa ezarri arte,

de recogida de papel/cartón y envases ligeros se empezará a ofrecer en el plazo de 15 días en el municipio.

- En el plazo de un mes se comenzará con la recogida de orgánico de los contenedores instalados en la vía pública.

- Tras haber firmado el convenio, antes que transcurran cinco meses, se comenzará con la recogida del rechazo y de los voluminosos.”

Apartado segundo.- Que el Ayuntamiento adopte un nuevo compromiso en el convenio, en concreto, incluir el apartado 6.9:

“SEIS.- Compromisos asumidos por el Ayuntamiento de Astigarraga.

“6.9.- Adoptará las medidas y recursos necesarios para lograr que los porcentajes de la recogida selectiva lleguen al 70%”

Apartado tercero.- Eliminar del convenio los apartados 5.1, el anexo I y toda referencia a la subrogación de los trabajadores.

Apartado cuarto.- Notificar a Garbitania que tras analizar la documentación presentada, se ha constatado que – en este caso concreto – las trabajadoras y los trabajadores no tienen derecho de subrogación, y darles traslado de una copia del informe jurídico.

Apartado quinto.- Notificar este acuerdo a la Mancomunidad de San Marcos y a la empresa Garbitania

Por otro lado, ha señalado que debido a que el nuevo sistema se va a implantar escalonadamente, hay que aprobar otro punto:

“Apartado quinto.- Notificar a la empresa Garbitania el cronograma de implantación del sistema aprobado en el convenio (anexo I), y solicitar que hasta que la Mancomunidad de San Marcos no empiece a prestar el servicio



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

azken horrek biltzen ez dituenak berek jasotzen jarraitzea.”

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta aipatu, akordio honekin bost langile kaleratuko direla. Gobernu taldeari aurpegiatu dio prentsan langileen lanpostuak mantentzeko lan handia egin dutela esan izana, eta gero langileek – eta enpresa – egoeraren berri prentsaren bidez enteratu izana. Argitu du EHBilduk kontra bozkatu izanaren arrazoia ez dela gobernu taldeak prentsan esandakoa, honako hau baizik: zerbitzua pribatizatzearen kontra egotea, udal-langileek prestatutako hasierako onarpenetik San Marko mankomunitateak eskatuta gauza asko kendu izana, eta horrela, testua okerrera egin izana; eta udalak mankomunitateari eskatzerik zuela langileak subrogatzea, txosten juridikoan esaten baita hori ez dela beharrezkoa, ez ezin dela egin.

Azken adierazpen horrek, zinegotziaren eta alkatearen arteko eztabaida sortu du. Alkateak komentatu du batetik; bost langileetatik 3 finkoak direla eta beste 2 obra-kontratu dutela; eta bestetik, Garbitaniak ez diela informaziorik pasa eta oraindik ez diela argitu langileak kalera doazen edo ez. Andoni zinegotziak erantzun dio bere taldeak ez duela Garbitaniaren eskutik informaziorik jaso, baina hitzarmena onartzeak matematikoki 5 langile kalean gelditzea dakarrela eta enpresak langileen inguruko txostena aurkeztu duela udaleko bulego orokorrean.

Alkateak argitu dio Garbitaniako bileretara ere ez zaiela deitu, eta informazio behin eta berriro eskatu arren, udal-idazkariak ofizialki eskatu eta gobernu taldeak beraiekin egindako azken bilera arte, ez dutela informazioarik bidali.

Andoni zinegotziak erantzun dio enpresari oraindik ez zaiola jakinarazi subrogaziorik ez dela egongo; dena den, benetan garrantzia duena, udalak erabakia legalki hartu arren, 5

en su totalidad, recoja aquellas fracciones de residuos que no recoge San Marcos.”

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que mediante este acuerdo se va a despedir cinco trabajadores. Reprocha al equipo de gobierno el haber declarado a la prensa que han trabajado mucho para mantener esos puestos de trabajo, y que luego los trabajadores –y la propia empresa– tuvieran conocimiento de la situación precisamente a través de la prensa. Aclara que la razón de que EHBildu haya votado en contra no es por lo declarado por el equipo de gobierno a la prensa, sino por lo siguiente: estar en contra de la privatización del servicio, que de la primera versión redactada por las y los técnicos municipales se hayan eliminado, a petición de la mancomunidad de San Markos, muchas cosas, y que, así, el texto se haya empeorado; y que el ayuntamiento podía haber pedido a la mancomunidad la subrogación de los trabajadores, ya que en el informe jurídico se dice que no es algo obligatorio, no que no pueda hacerse.

Esa última afirmación ha originado una discusión entre el concejal y el alcalde. El alcalde comenta, por una parte, que tres de los cinco trabajadores son fijos y que los otros dos cuentan con contrato de obra y, por otra, que Garbitania no les ha facilitado información y que aún no les ha aclarado si los trabajadores van a ser despedidos o no. El concejal Andoni le contesta que su grupo no ha recibido información por parte de Garbitania, pero que la aprobación del convenio conlleva automáticamente que 5 trabajadores se queden en la calle, y que la empresa ha presentado un informe sobre los trabajadores en la oficina general del ayuntamiento.

El alcalde le aclara que no se les ha convocado a las reuniones de Garbitania, y que pese a solicitar información reiteradamente, no la han remitido hasta que la secretaria municipal la solicitó de manera oficial y tuvo lugar la última reunión que el equipo de gobierno mantuvo con ellos.

El concejal Andoni le contesta que a la empresa



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

langile kalea doazela dela.

Zorione zinegotziak hitza eskatu eta adierazi du; batetik, Garbitaniak informazioa beraiekin bilera eduki ondoren bidali zuela; bestetik, erabaki batzuk ondorioak dituztela, esaterako, lehen ere sistema aldaketak 3 langile kaleratzea erakarri zuela; eta azkenik, subrogazioa gauzatzeko urratsak azken momentu arte eman dituztela, eta horren froga dela hitzarmena onartu izana subrogazioa eskubidea bermatuz, eta daturik gabeko subrogazio taularekin, baina lege ezin dela subrogatu.

Andoni zinegotziak erantzun dio subrogazioa hitzarmenean jaso zutela lege behartuta zedela pentsatzen zutelako, eta derrigorrezkoa ez dela jakin bezain pronto kendu dutela. Baina sartzetik zegoela, eta ez litzakeela legearen kontra joango eta horren inguruan galdetu zaio udal-idazkariari. Horrek azaldu du subrogazioaren gaia lan-arloko legedian arautzen dela, eta langileak horretara eskubiderik ez eduki arren, onartzerik dagoela eta hitzarmenean jaso daitekeela, horrek ez bailuke legedi hori urratuko, baina – legearen oinarrituta – udalak ezin duela behartu mankomunitatea horretara.

Jarraian **irizpena eta proposatutako akordio berria** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu egin da aldeko 7 botoekin** (EAJ-PNV taldeko 6 kideena eta Euskadiko Sozialista taldearena) eta **kontrako 6 botoekin** (EHBildu taldearen 6 kideena).

3.- Lanpostu zerrenda eta plantila: alegazioak erantzun eta behin betiko onartzea.

Alkateak Zorione zinegotziari pasa dio hitza eta

aún no se le ha notificado que no va a haber subrogaciones; y que lo verdaderamente importante es que, aunque el ayuntamiento adopte el acuerdo legalmente, 5 trabajadores van a ser despedidos.

La concejala Zorione toma la palabra y señala, por una parte, que Garbitania remitió la información una vez mantenida la reunión con ellos; por otra parte, que algunas decisiones tienen sus consecuencias, por ejemplo, que anterior cambio de sistema originara también el despido de 3 trabajadores; y por último, que han dado los pasos pertinentes para garantizar la subrogación, siendo prueba de ello la aprobación del convenio garantizando ese derecho, y con una tabla de subrogación sin datos, pero que por ley no se puede subrogar.

El concejal Andoni le contesta que incluyeron la subrogación en el convenio porque creían que estaban obligados a hacerlo por ley, y que la retiraron en cuanto supieron que no es obligatoria. Pero que se podía incluir, y que no iría contra la ley, y ha preguntado al respecto a la secretaria municipal. La secretaria expone que el tema de la subrogación se regula en la legislación laboral, y que aunque no se tenga derecho a ello, se puede aceptar y se puede recoger en el convenio, ya que no infringiría esa legislación, pero que –basándose en la ley– el ayuntamiento no puede obligar a ello a la mancomunidad.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba con 7 votos a favor** (6 de los miembros de EAJ-PNV y 1 de Socialistas Vascos) **y 6 en contra** (de los miembros de EHBildu).

3.- RPT y plantilla: contestación alegaciones y aprobación definitiva.

El alcalde le cede la palabra a la concejala Zorione que presenta para su aprobación el



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

horrek pertsonal batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- *Udal kontuhartzaileak eginiko alegazioa ez onartzea, diruzaintza sailean hutsik dagoen postua diruzainarena delako eta ez departamenduko administrariarena.*

Bigarrena.- *RPTan diruzain postua hutsik dagoela jasotzea.*

Hirugarrena.- *Kontuan izanik egungo egoera eta diruzain postua sortu zenetik egoera asko aldatu dela, kontuhartzaileak txosten bat egin dezala, aztertzeko diruzain postua bere horretan mantendu behar den, edo egokitzea beharrezkoa den (langilearen baldintzak, funtzio eta zereginak ...).*

Laugarrena.- *Diruzain postua behin betikoz bete arte, edo postu horrekin zer gertatzen den erabaki arte, egun onartuta dauden bitarteko lanpostuak mantentzea.*

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du aurreko legealdian iruzur fiskalari aurre egiteko kanpo kontratazio bat egin zela, baina gobernu ordezkariak auzi-errekurtsoa aurkeztu zuela, lan hori udal langile baten esku egon behar duelako. Hori horrela, eskatu du udal kontu-hartzaileak egin behar duen txostenean iruzur fiskalaren gaia ere kontuan hartzeko. Kontu-hartzaileak horrela egingo duela erantzun dio.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

4.- Kale izendegiaren aldaketa

Alkateak Jon zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek obra eta zerbitzu batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehen atala.- *AIU9 eremuan egin berri diren eraikinen atariei Kontxa Etxeberria kaleko 5, 6, 10 eta 11 zenbakiak ezarri.*

siguiente dictamen de la comisión de personal:

Primero.- *Rechazar la alegación formulada por el interventor municipal, ya que el puesto que está vacante en el departamento de tesorería-contabilidad es el de tesorera, y no el administrativo del departamento.*

Segundo.- *Recoger en la RPT la vacante del puesto de tesorera.*

Tercero.- *Vista la situación actual, y que el puesto de tesorera, desde que se creó, ha sufrido modificaciones, solicitar al interventor la realización de un informe para analizar si dicho puesto se deja como está o necesita algún cambio (condiciones del trabajador, funciones, tareas, ...).*

Cuarto.- *Mantener los puestos que están hoy en día en interinidad hasta que se cubra la plaza de tesorera o hasta que se decida qué hacer con el puesto.*

Toma la palabra el concejal Andoni y manifiesta que en la anterior legislatura se realizó una contratación externa para luchar contra el fraude fiscal, pero que el delegado del gobierno presentó recurso contencioso, porque esa tarea debe corresponder a una o un empleado municipal. Por ello, solicita que se tenga también en cuenta ese tema en el informe que debe ser elaborado por el interventor municipal. El interventor responde que así lo hará.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

4.- Modificación del callejero

El alcalde cede la palabra al concejal Jon, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

Primer apartado.- *Asignar a los portales de los edificios que se están construyendo en el área AIU9 como Kontxa Etxeberria 5, 6, 10 y 11.*



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bigarren atala.- Bidebitarte poligonoan, Biurarenaren ondoan STUA erakitzen ari den pabiloiari Donostia ibilbidea 30 zenbakia jartzea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, batzordean “Emakumeon plaza”ri “Emakume plaza” izena jartzea ere onartu zela. Gaineratu du bere taldearentzako lehen izena egokiagoa dela, inklusiboagoa delako, Euskaltzaindiaren irizpideekin bat ez etorri arren, eta ondorioz, gaiaren inguruan hausnarketa egin behar dela. Azkenik, udal gobernu taldeari eskerrak eman dizkio irizpen hori bilkurara ekarri ez izanagatik.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

Segundo apartado.- Asignar al pabellón que está construyendo STUA en el polígono Bidebitarte, junto a Biurarena el nº 30 de Donostia ibilbidea.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que en la comisión se aprobó cambiar la denominación de “Emakumeon plaza” por la de “Emakume plaza”. Añade que para su grupo el primer nombre es más apropiado, porque es más inclusivo, aunque no coincida con los criterios de Euskaltzaindia, y por lo tanto, considera necesario realizar reflexionar sobre el tema. Por último, agradece al equipo de gobierno municipal el no haber traído a la reunión ese dictamen.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

5.- 2017ko taxi tarifen onarpena

Alkateak Jon zinegotziari pasa dio hitza eta horrek obra eta zerbitzu batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

5. Aprobar las tarifas del taxi del 2017.

El alcalde cede la palabra al concejal Jon, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

2017ko TARIFA BATERATUA					
1 TARIFA			2 TARIFA		
<i>Lan egunetan 7:00ak eta 22:00 ordu tartean aplikagarri</i>			<i>Egunero aplikagarria, 22:00tik 7:00 orduak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00etatik 22:00ak arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31ko egunetan.</i>		
Bandera jaitsiera	Ibilitako kilometro bakoitza	Itxarote ordua	Bandera jaitsiera	Ibilitako kilometro bakoitza	Itxarote ordua
5,12	1,0885	20,888	6,1028	1,7436	32,8274

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, batzordean ere aipatu zuela herrian taxi-zerbitzua kaxkarra dela, egun ez dagoela zerbitzurik eta taxi parada aparkatzeko ere erabiltzen dela, udaltzainak isunik jarri gabe.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que también indicó en la comisión que el servicio de taxi en la localidad es deficiente, que actualmente no hay servicio y que la parada de taxis se utiliza incluso para aparcar, sin que la guardia municipal multe por ello.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Jon zinegotziak erantzun dio, batzordean esan bezala, konpromisoa hartzen dutela egoera urte bukaerarako konpontzeko.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

6.- 1994. urtean saldutako lursaila eskuratu ahal izateko Alkatea baimentzea.

Alkateak ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Alkateari baimena ematea aipatu salerosketa egiteko beharrezko dokumentu guztiak sina ditzan, Jabetzaren Erregistroan guztiz erregistratu arte, zuzenketa- eta/edo argitze-eskriturak barne.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

7.- Interreg programa

Alkateak Jon zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

1.- Aipatu programa ez dela barnean hartu adierazten duen komunikazioa ikusirik, bidezko da programa honi lotutako 2017., 2018. eta 2019. urteei dagozkien urte anitzeko kredituen (96.445; 105.361 eta 21.925 eurokoak, hurrenez hurren) onespina eraginik gabe uztea. (2016ko apirilaren 25eko osoko bilkuran hartutako erabakia).

2.- Programa honetan 2016tako bildutako kredituaren zenbatekoari (76.231 €) eutsiko zaio, baina inbertsioa handitzeko erabiliko da lotura berdina duten inbertsioetan.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, beraiek diru-laguntza hau eskatzearekin

Le contesta el concejal Jon señalando, que tal y como indicó en la comisión, se comprometen a solucionar la situación para fin de año.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

6.- Autorizar al Alcalde para la firma de las escrituras de la venta de terreno año 1.994.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

Autorizar al alcalde a la firma de todos los documentos necesarios para llevar a efecto la venta mencionada, hasta su total inscripción en el Registro de la Propiedad, incluidas escrituras de subsanación y/o aclaración.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

7.- Programa interreg.

El alcalde cede la palabra al concejal Jon, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.- Vista la comunicación por la que se pone de manifiesto que el programa en cuestión no ha sido incluido procede dejar sin efecto la aprobación de los créditos plurianuales referidos a los años 2017, 2018, y 2019 de importes 96.445, 105.361 y 21.925€ respectivamente, vinculados a este programa. (acuerdo adoptado en la sesión plenaria de fecha 25 de abril de 2016).

2.- El crédito contenido en este programa para el 2016, de importe 76.231 €, se mantendrá su importe si bien servirá para aumentar la inversión en las inversiones con la misma vinculación.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que ellos tuvieron dudas a la hora de solicitar



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

zalantzak zituztela eta horregatik bere egunean abstenitu egin zirela; eta ondorioz, berri txarra izan behar zuena, ez dela izan.

Gobernu taldearentzat, berriz, albiste txarra izan da laguntza ez onartu izana, are eta gehiago, onartu ez izatearen arrazoia akats informatibo bat denean eta ez bideragarritasun kontua. Gainera, alkateak adierazi du laguntza hau aukera ona zela inbertsioak egiteko. Eta Zorione zinegotziak komentatu du proposamena Donostiako Zentro Teknologiko batek egin zuela, eta beste herrialde batzuekin batera uholdeak saihestearen inguruko proiektuan parte hartzeko gonbidapena zela.

Andoni zinegotziak erantzun die laguntza teknologian inbertitzeko zela, ez uholdeak saihesteko obrak egiteko.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

8.- Kreditu transferentzia: alkatearen 1030/2016 dekretuaren berri ematea.

Kreditu-transferentziako modalitatean kredituak aldatzeko espediente onartzen duen Alkatearen 1030/2016 Dekretuaren berri ematen zaio udal osoko bilkurari.

Jon zinegotziak argitu du gastu arrunteko kontu-sailak doitzeko egin den kreditu aldaketa dela. Eta Andoni zinegotziak, berriz, Eternal Running ekitaldia antolatzeko gastuari (18.000 euro) aurre egiteko.

9.- Kreditu transferentzia: kontu-hartzailearen urriaren 17ko txostenaren berri ematea.

17/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan xedatutako jarraiki, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraukortasunaren helburuak eta gastu araua

esta subvención y que por eso se abstuvieron en su día, y que, por lo tanto, lo que debería haber sido una mala noticia, no lo ha sido.

Para el equipo de gobierno, en cambio, el no aceptar la ayuda ha sido una mala noticia, y más aún cuando la razón de ello ha sido un fallo informático y no un tema de viabilidad. Además, el alcalde señala que esta ayuda constituye una buena oportunidad para realizar inversiones. Y la concejala Zorione comenta que la propuesta fue realizada por el Centro Tecnológico de Donostia, y que se trataba de una invitación a participar junto con otras zonas en un proyecto en torno a cómo evitar las inundaciones.

Contesta el concejal Andoni señalando que la ayuda era para ser invertida en tecnología, no para realizar obras con el objetivo de evitar inundaciones.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

8.- Transferencia de créditos: Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1030/2016.

Se da cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 1030/2016, por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos en la modalidad de transferencia de créditos.

El concejal Jon aclara que se trata de una modificación efectuada para ajustar las partidas de gasto ordinario. Y el concejal Andoni, por su parte, indica que es para hacer frente a la organización de la prueba Eternal Running (18.000 euro).

9.- Transferencia de créditos: Dar cuenta del informe del interventor de fecha 17 de octubre.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 5.3 de la Norma Foral 17/2013, se da cuenta al Pleno del informe del interventor municipal, de fecha 17 de octubre, sobre cumplimiento de los objetivos



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

betetzeari buruzko kontu hartzailearen urriaren 17ko txostenaren berri eman da.

de la estabilidad presupuestaria y la sostenibilidad financiera, y la norma de gasto.

10.- Kreditu aldaketa

Alkateak Jon zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

1.- 450.771,04 €ko kreditu-aldaketari hasierako onespina ematea, kreditu gehigarri modalitatean (2016-kald-000004)

2.- Espedientea 15 egun balioduneko aldiari jendaurrean erakusgai jartzea, alegazioak egiten ez badira espedientea behin betiko onartuta geratuko dela azalduz, beste akordio baten beharrik gabe.

Andoni zinegotziak adierazi du ogasun batzordean abstenitu egin zirela eta orain ere horrela egingo dutela, ez proposamena gaizki ikusten dutelako, hobetu daitekeelako baizik. Eta aurreratu du jendaurrean dagoen bitartean, alegazioa aurkeztuko dutela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** egin da **aldeko 7 botoekin** (EAJ-PNV taldeko 6 kideak eta Euskadiko Sozialitarena) **eta 6 abstentzioekin** (EHBilduko kideena).

11.- Zerga fiskalak: alegazioak erantzun eta behin betiko onartzea.

Alkateak Jon zinegotziari pasa dio hitza eta horrek ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

EHBILDUren ALEGAZIOAK

1.- 2.zk. alegazioa baiestea, zeinaren garapena Gizarte Ongizate Departamentuaren bitartez kudeatuko den.

10.- Modificación de créditos

El alcalde cede la palabra al concejal Jon, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.- Proceder a la aprobación inicial de la modificación de créditos en la modalidad de crédito adicional (2016-kald-000004) de importe 450.771,04 €.

2.- Someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que caso de no formalizarse alegaciones quedará el expediente aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

El concejal Andoni señala que en la comisión de hacienda se abstuvieron y que ahora también lo van a hacer así, no porque vean con malos ojos la propuesta, sino porque creen que se puede mejorar. Y adelanta que mientras se exponga en público, presentarán la alegación.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba con 7 votos a favor** (6 de los miembros de EAJ-PNV y 1 de Socialistas Vascos) **y 6 abstenciones** (de los miembros de EHBildu).

11.- Ordenanzas Fiscales: contestación alegaciones y aprobación definitiva.

El alcalde cede la palabra al concejal Jon, que presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

ALEGACIONES DE EHBILDU

1º.- Estimar la alegación nº 2, cuyo desarrollo se gestionará a través de Bienestar Social.

2º.- Estimar la alegación nº 4, cuyo desarrollo



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

2.- 4.zk. alegazioa baiestea, zeinaren garapena Hirigintza Departamentuaren bitartez egingo den, eta horren ondorioz 500.000 €tik gorako zenbatekoa duten obrei emandako lizentziek dagozkien fakturak ere aurkeztu beharko dituzte, behin betiko likidazioa praktikatzeko, hala badagokio.

3.- 1.zk. alegazioa ezestea.

PROPOSAMEN TEKNIKOAK

1.- Kultura Batzordeak bidalitako proposamenak baiestea.

2.- Kirol- teknikariak bidalitako proposamena baiestea.

3.- Testu Bategineko 2.4. Hirigintza Tasak puntuan 1.5.4.3 idatz-zatia, udalari urbanizazioak emateagatiko tasari buruzkoa (10€/lagatako m²), kentzea.

AZKENIK

2017ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko diren zerga-ordenantzan Testu Bategina onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Andoni zinegotziak adierazi du ogasun batzordean abstenitu egin zirela eta orain ere horrela egingo dutela, gainera adierazi du: batetik, zergak ez igotzearekin ados daudela; bigarrenik, aurreko legealdian Aldundiak etxe hutsen IBla igotzeko bidea jarri zuela eta horrek etxe hutsak kaleratzeko aukera ematen dituela, baina indizea %70a arte jarri daitekeen bitartean, udalak bakarrik %35a aplikatuko duela; hirugarrenik, udal-langileek iruzur fiskalaren kontra dihardutea; laugarrenik, obra nagusien promotoreak obra egin aurretik aurkezten dituzten aurrekontuak eta benetako gastua (horien esanetan) beti bat datozenez, horiek kontrolatu behar direla, kontabilitateko informazioa jasoaz; bosgarrenik, Aldundiak

se realizará a través de urbanismo, de tal modo que aquellas licencias concedidas a obras de importe superior a 500.000 € deberán de aportar también las facturas correspondientes, para practicar la liquidación definitiva, si procede.

3º.- Desestimar la alegación nº 1.

PROPUESTAS TECNICAS

1.- Estimar las propuestas remitidas por la Comisión de Cultura.

2.- Estimar la propuesta remitida por el técnico de deportes.

3.- En el texto refundido 2.4. Tasas urbanísticas proceder a la exclusión del apartado 1.5.4.3 relativo a la tasa por concesión de urbanizaciones al ayuntamiento (10€/m² de cesión).

FINAL

Proceder a la aprobación del Texto Refundido de ordenanzas fiscales que entrarán en vigor el 1 de enero de 2017 y proceder a su publicación en el Boletín oficial de Gipuzkoa.

El concejal Andoni señala que en la comisión de hacienda se abstuvieron y que ahora también lo van a hacer así, añadiendo lo siguiente: por una parte, que están de acuerdo con no subir los impuestos; en segundo lugar, que en la legislación anterior la Diputación facilitó el camino para subir el IBI de las viviendas vacías y que eso posibilita la opción de que salgan a la calle viviendas vacías, pero que mientras que el índice puede fijarse hasta en un 70 %, el ayuntamiento sólo aplicará el 35 %; en tercer lugar, que las y los trabajadores municipales actúen contra el fraude fiscal; en cuarto lugar, que considerando que los presupuestos presentados por los promotores antes de las obras principales y el gasto real siempre coinciden, es preciso controlar esos



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

IBlak eguneratu dituen ez eta horrek tarifen igoera dakarrenez, udalak indizeak txikitu dituela, eta aurrekontuan kontu-saila sortu, zerga ordaindu ez dezaketenez bizilagunei laguntzeko; eta azkenik, promotoreek udalari egiten dieten lagapenengatik ordaindu beharrekoa zenbatekoak 2016an ez direla bideratu.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** egin da **aldeko 7 botoekin** (EAJ-PNV taldeko 6 kideak eta Euskadiko Sozialistarena) eta **6 abstentzioekin** (EHBilduko kideena).

12.- Parte-hartze ordenantza urratu izanaren kexa.

Alkateak hitza pasa dio Nerea zinegotziari, eta horrek azaldu du aurrekontu parte-hartzaileetan ez zenez ezarritako prozedura jarraitu, udal-idazkariaren txostena eskatu zitzaioela. Jarraian, kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen honen berri eman du:

Aurrekontu parte hartzaileen ordenantzaren 23.d eta 23.f artikulua ez betetzearen kexaren berri ematea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, ordenantza onartuta dagoela eta bertan aurrekontu parte-hartzaileen prozedura argi jasota dagoela, batetik; bestetik, harrizta daudela herritarrekin asanblada ez delako egin; eta hirugarrenik, ogasun batzordean aipatu zutela asanblada egin beharra, baina ez zenez egin udal-idazkariaren txostena eskatu zutela. Bukatzeko, kometatu du prozesuan erretiratuen egoitza birgatzera onartu zela, eta gaia nola dagoen galdetu du.

Jon zinegotziak azaldu dio jarduera-proiektua egin behar dela, eta ondoren, zehaztuko direla

presupuestos, pidiendo información contable; en quinto lugar, que, al haber actualizado la Diputación los IBIs con la consecuente subida de tarifas, el ayuntamiento ha reducido los índices y ha creado una partida en el presupuesto a fin de ayudar a la ciudadanía que no pueden pagar el impuesto; y por último, que no se han cursado las cantidades que se deben pagar por la cesión que los promotores realizan al ayuntamiento.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba con 7 votos a favor** (6 de los miembros de EAJ-PNV y 1 de Socialistas Vascos) **y 6 abstenciones** (de los miembros de EHBildu).

12.- Queja sobre la infracción de la ordenanza de participación ciudadana.

El alcalde cede la palabra a la concejal Nerea, la cual explica que al no haberse respetado el proceso establecido para los presupuestos participativos, se solicitó informe a la secretaria municipal. A continuación da cuenta del siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

Dar cuenta de la queja surgida por el incumplimiento de los artículos 23.d y 23.f de la ordenanza municipal de participación.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala, por una parte, que la ordenanza ya está aprobada y que en ella se recoge claramente el procedimiento de los presupuestos participativos; por otra, que están sorprendidos porque no se ha realizado ninguna asamblea con la ciudadanía; y tercero, que en la comisión de hacienda señalaron la necesidad de hacer la asamblea, pero que al no realizarse, solicitaron el informe de la secretaria municipal. Para concluir, comenta que en el proceso se aprobó la rehabilitación de la sede de los jubilados, y pregunta cómo está ese tema.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

egin beharrekoak (lokala hobetu, sukaldea ekipatu ...) eta eskatuko direla beharrezko aurrekontuak. Bestalde adierazi dio leihoak ere aldatu behar direla, efizientzia energetikoa ez dutela betetzen.

Bizilagun batek hartu du hitza eta adierazi du ez duela prozesuaren emaitzaren berri eduki, prozesuan informazio gutxi eman dela eta 3 egun bakarrik egon direla 5 proiektuetatik bat aukeratzeko.

Jon zinegotziak erantzun dio etxe guztietara banatu zirela prozesuaren inguruko informazioa eta bozka-paperak, eta kartelak ere jarri zirela. Bukatzeko, komentatu dio prozesuaren erantzukizun guztia bere gain hartzen duela, eta datorren urteari begira, hobeto egingo dela.

El concejal Jon le explica que hay que realizar un proyecto de actividad, y que posteriormente se especificarán las actuaciones que se deben realizar (mejora del local, equipamiento de la cocina...) y que se solicitarán los presupuestos necesarios. Por otra parte, señala que también hay que cambiar las ventanas, ya que no cumplen con la eficiencia energética requerida.

Toma la palabra un vecino y manifiesta que no ha tenido conocimiento del resultado del proceso, que durante el mismo se ha facilitado poca información y que sólo se ha dispuesto de 3 días para elegir 1 de los 5 proyectos.

El concejal Jon le contesta que la información sobre el proceso y las papeletas de voto se enviaron a todos los domicilios, y que también se pusieron carteles. Para concluir, le comenta que asume toda la responsabilidad del proceso, y que de cara al año que viene, se realizará mejor.

13.- Sasoi-Sport. Kontratu luzapena onartzea.

Alkateak Zorione zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek kultura eta euskara teknikariaren txostena aurkeztu du, non udal osoko bilkurari eskatzen zaion akordio hau hartzea:

Santiгомendiko aterpearen kudeaketa eta Natur eskolaren kontratoa Sasoi-Sport enpresarekin urte betez luzatzea, 2017ko abuztuaren 31 arte.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da kontratua urte batez luzatzea.**

13.- Sasoi-Sport. Aprobación de la prórroga del contrato.

El alcalde cede la palabra a la concejal Zorione, que presenta el informe de la técnico de cultura y euskara, en el que se propone al pleno la adopción del siguiente acuerdo:

Prorrogar el contrato de la gestión del albergue de Santiгомendi y la Natur Eskola con Sasio-Sport por el plazo de un año, hasta el 31 de agosto de 2017.

A continuación se procede a la votación, y **se aprueba por unanimidad prorrogar el contrato durante un año.**

14.- Tokiko Gobernu Batzarreko kideak eta eskuordetutako eskumenak aldatzeari buruzko Alkatearen 1136/2016 dekretuaren berri ematea.

1136/2016 dekretuaren eta dekretu hori

14.- Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1136/2016 sobre modificación de los miembros de la Junta de Gobierno Local, así como de las competencias delegadas.

Se da cuenta del decreto 1136/2016 así como



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

aldatzen duen 1148/2016 dekretuaren berri eman da. Azaltzen da bi ebazpen horiek arlo hauetako eskumenei eragiten diela: kontrazioari, hirigintza-lizentziei eta diru-laguntzen. Era berean, adierazten da ebazpen horien ondoren, tokiko gobernu batzordea kide hauek osatzen dutela:

Lehendakaria: Jesús M^a Santos
Bokalak: Zorione Etxezarraga
Jon Arregui
Andoni Gartzia
Mikel Duran.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi udal osoko bilkurarako deialdia egin baino 30 minutu lehenago eduki zutela dekretuaren berri, pertsonalki berari jakinarazi ziotela, baina ordurako dekretua eta deialdia sinatuta zeudela. Gaineratu du erabakiak ez duela herritarren hitza kontuan hartu, bere taldeak Sozialita taldeak dituen kide kopuru berdina edukiko duelako batzordean, hautestontzietan gobernu taldeak baino bozka gehiago lortu dituen, eta jarraian, legealdian talde bakoitzaren parte-hartzearen portzentajearen berri eman du (EAJ-PNV %77,3, Euskadiko Sozialistak %72,8 eta EHBildu %95,5). Bukatzeko lone zinegotziari eskerrak eman dizkio batzorde horretan egindako lanarengatik.

Bizilagun batek hartu du hitza eta alkateari aurpegiratu dio bere arazo pertsonalarengatik batzordetik EHBilduren kide bat kendu izana, eta herritarren hitza kontuan hartu ez izana.

Alkateak erantzun dio ez dela EHBilduren kontrako erabaki bat izan, beharrezkoa izan dela beste alkate orde bat izendatzeko, egun bakarra baitago.

Zorione zingotziak adierazi du EAJ-PNV batzordean asistentzi portzentajea txikiagoa izatearen arrazoia alkatea, gaixo egon denez, ez bertaratu izana dela. Bestetik, komentatu du egoera horrek ere bozketan eragozten duela,

del decreto 1148/2016 que modifica ese último. Se explica que estas dos resoluciones modifican competencias en materia de contratación, concesión de licencias urbanísticas y subvenciones; y que a raíz de las mismas la junta de gobierno local se compone con los siguientes concejales:

Presidente: Jesús M^a Santos
Vocales: Zorione Etxezarraga
Jon Arregui
Andoni Gartzia
Mikel Duran.

Toma la palabra el concejal Andoni y manifiesta que tuvieron conocimiento del decreto 30 minutos antes de que se hiciese la convocatoria para el pleno municipal, que se lo comunicaron personalmente, pero que para entonces el decreto y la convocatoria ya se habían firmado. Añade que el acuerdo no ha tenido en cuenta la palabra de la ciudadanía, porque su grupo contará en la comisión con el mismo número de miembros con los que contará el grupo Socialista, cuando ha logrado en las urnas más votos que el equipo de gobierno, y seguidamente, ha dado cuenta del porcentaje de participación de cada grupo en la legislatura (EAJ-PNV 77,3%, Socialistas Vascos 72,8% y EHBildu 95,5%). Para concluir, agradece a la concejala lone el trabajo realizado en esa comisión.

Toma la palabra una vecina y recrimina al alcalde haber quitado un miembro de EHBildu de la comisión por su problema personal, y no haber tenido en cuenta la palabra de la ciudadanía.

El alcalde le contesta que no ha sido una decisión en contra de EHBildu, que ha sido algo necesario para poder nombrar otro teniente de alcalde, ya que actualmente sólo hay uno.

La concejala Zorione indica que la razón de que el porcentaje de asistencia en la comisión por parte de EAJ-PNV haya sido menor se debe a las incomparecencias del alcalde, al haber estado enfermo. Por otra parte, comenta que



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

batzordea 4 kideekin bakarrik osatzen delako.

Andoni zinegotziak adierazi die hausnarketa egin beharko lukeetela, alkatearen arazo medikuengatik herritarrek erabakitakoa ez errespetatzeko.

Alkateak erantzun dio alkatetza beraiak dutela, eta erabakia batzordearen funtzionamendua hobetzeko hartu dela, eta ez hartzeko gai pertsonal bat bezala. Eta zinegotziarekin tirabira eduki ondoren, dimititzea nahi duen galdetu dio. Zinegotziak erantzun dio hori berak erabaki beharreko kontu bat dela.

15.- 2. alkate orde izendatzeari buruzko Alkatearen 1137/2016 dekretuaren berri ematea.

Jon Arregi zinegotzia 2. alkate orde izendatzen duen 1137/2016 dekretuaren berri ematen da.

lone zinegotziak hartu du hitza eta adierazi hau izan dela tokiko gobernu batzordearen kideak aldatzearen arrazoia, hau da, 2. alkate orde bezala udal gobernu taldeko kide bat izendatzea.

Horrek bertaratuen artean ixkanbila sortuarazi du. Bizilagun batek berriro ere baja hartuko duen galdetu dio alkateari, horrek erantzun dio iraillean operatu behar zutela, baina infekzio bat eduki zuenez, ez zutela operatu, eta horretarako itxaroten dagoela

Beste bizilagun batek, adierazi du alkate izatea ardua handia dela eta horretarako %100ean egon behar dela, eta 3 hilabete etorri gabe egon ondoren, plena eramateko moduan dagoen galdetu dio.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi irizpide desberdinak daudela bajaran dagoen pertsona bat plenoan parte hartzeari inguruan,

esa situación dificulta las votaciones, porque la comisión está formada sólo por cuatro miembros.

El concejal Andoni señala que deberían efectuar una reflexión, al respetarse lo acordado por la ciudadanía debido a los problemas médicos del alcalde.

El alcalde le contesta que la alcaldía la tienen ellos, y que la decisión se ha tomado para mejorar el funcionamiento de la comisión, y que no se debe tomar como un asunto personal. Y tras un tira y afloja mantenido con el concejal, le pregunta si quiere que dimita. El concejal le responde que eso es algo que debe decidir él mismo.

15.- Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 1137/2016 sobre nombramiento del 2. teniente de alcalde.

Se da cuenta del decreto 1137/2016 por el que se nombra a Jon Arregi 2º teniente de alcalde.

Toma la palabra la concejala lone e indica que esa ha sido la razón del cambio de miembros de la comisión de gobierno, es decir, nombrar como teniente de alcalde a un miembro del equipo de gobierno municipal.

Eso origina una bronca entre los presentes. Una vecina pregunta al alcalde si va a coger la baja de nuevo, a lo que éste le contesta que tenían que operarse en septiembre, pero que al haber tenido una infección, no le operaron, y que está a la espera.

Otra vecina señala que ser alcalde supone una gran responsabilidad y que para ello se debe estar al 100%, y le pregunta si, tras haber estado 3 meses sin asistir, se encuentra en condiciones de llevar el pleno.

Toma la palabra la concejala Zorione y señala que existen diferentes criterios sobre la participación de una persona que está de baja en el pleno, y que en otros municipios, por



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta beste udalerrietan, esaterako, Villabonan, alkatea egoera okerragoan joaten dela bileretara.

Hirugarren bizilagun batek hartu du hitza eta adierazi, alkateak herriarekiko erantzukizunak dituela eta herriari erantzuteko ongi dagoen galdetu dio. Jarraian komentatu du udal gobernu taldeak begiratzen duen bakarra, legea betetzen den edo ez dela. Eta horrek Garbitania enpresako langileen egoerari buruzko eztabaida suspertu du (plenoko 2. aztergaia), bizilagun horren esanetan, udalak egin duena baino gehiago egin zezakeelako.

Zorione zinegotziak erantzun dio garbitania 3 udalek osatzen dutela, eta beraiek ezin diotela esan Garbitaniari zer egin. Gainera adierazi du legeak ez duenez subrogazioa aurreikusten, ezin dela horretara behartu eta negoziatzea zegoen arren, horrek sistema berria martxan ez jartzea suposatuko lukeela, udalak kontratazio espediente bat martxan jarri izan bali, baldintza hauetan ez litzatekeela inor aurkeztuko.

Eztabaidan parte hartu duen 2. bizilagunak, galdetu du gaiaren inguruan mankomunitatearekin zenbat bilera egin dituzten eta horien aktak dauden. Zorione zinegotziak erantzun dio pila egin dituztela, baina ez dagoela aktarik. Eta bizilagunak esan dio publiko egin beharko luketeela egindako bileren kopurua eta horien datak.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta Zorione zinegotziari galdetu dio udal-idazkariaren txostenaren ondoren zenbat bilera egin dituzten, ezin baitituzte asko egin 11 egunetan.

16.- Alkatearen eskumenekoak diren hainbat kontratuen kontratazioa udal osoko bilkurari eskuordetzea.

Osoko bilkurari 1138/2016 dekretuaren berri eman zaio, bertan alkateak plenoari kontratazio

ejemplo, en Villabona, el alcalde acude a las sesiones en un estado aún peor.

Un tercer vecino toma la palabra y señala que el alcalde tiene unas responsabilidades frente al pueblo y le pregunta si está en condiciones para poder responder al pueblo. Comenta a continuación que lo único que mira el equipo de gobierno es si cumple la ley o no. Y eso ha reavivado la discusión sobre la situación de los trabajadores de la empresa Garbitania (punto 2 del pleno), porque en opinión de ese vecino, el ayuntamiento podía haber hecho más de lo que ha hecho.

La concejala Zorione le contesta que Garbitania está compuesta por 3 ayuntamientos, y que ellos no pueden decirle a Garbitania qué es lo que deben hacer. Además, señala que al no estar prevista la subrogación por la ley, no se puede obligar a ello y aunque se podía haber negociado, eso habría supuesto no poner en marcha el nuevo sistema, y que si el ayuntamiento hubiese iniciado un expediente de contratación, no se habría presentado nadie en esas condiciones.

La segunda vecina que ha participado en el debate pregunta cuántas reuniones se han llevado a cabo con la mancomunidad sobre el tema y si hay actas de las mismas. La concejala Zorione le contesta que se han celebrado un montón de reuniones, pero que no hay actas. Y la vecina le indica que debería hacerse público el número de reuniones celebradas y las fechas.

Toma la palabra el concejal Andoni y pregunta a la concejala Zorione cuántas reuniones han celebrado tras el informe de la secretaria municipal, ya que no han podido celebrar muchas en 11 días.

16.- Delegar en el pleno la contratación de algunos contratos de competencia del alcalde.

Se da cuenta del decreto 1138/2016 por el que se delegan en el pleno las siguientes



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

arloko eskumen hauek eskuordetzen dizkio:

Obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta 300.000 eurotik gorakoak badira. Eta baita ere obra- eta zerbitzu-kontratu horien guztien kitapenaren onarpena.

Eskuordetza honetatik kanpon gelditzen da, kontratu horien kontratu-aldaketen espedienteak izapidetzea eta onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da alkateak egindako eskuordetzea.**

17.- EHBilduren mozioa: aldiriko tren geltokiaren aldekoa.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza eta azken horrek adierazi du mozioa irailen aurkeztu zutela, baina aurreko bi bileretan ez zela utzi eztabaidatzen, jarraian mozioa aurkeztu du:

1.- Astigarragako Udal Osoko Bilkurak Astigarragako Aldiriko Geltokia estrategikotzat jotzen du eta ahalik eta epe laburrean proiektua egin, onartu eta gauzatzea eskatzen du.

2.- Horretarako, Udal Osoko Bilkurak beharrezkotzat jotzen du AHTren Hernani-Astigarraga zatiaren lanekin batera burutzea Aldiriko Geltoki berria.

3.- ETS eta ADIFI Astigarragako Aldiriko Geltokiaren egoera zein den zehazteko eskatzen diogu.

4.- ETS eta ADIFI Geltokia errealitate bilaka dadin benetako apustua egin eta konpromisoa (humanoa, teknikoa eta

competencias en materia de contratación:

La contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados, cuya cuantía supere 300.000 euros. Así como la aprobación de la liquidación de esos contratos de obras y servicios.

Se exceptúa de esta delegación la tramitación y aprobación de los expedientes de modificación de estos contratos.

A continuación se procede a votación y **se aprueba por unanimidad la delegación efectuada.**

17.- Moción de EHBildu: a favor de parada del tren de cercanías.

El alcalde le cede la palabra al concejal Andoni el cual, tras señalar que la moción se presentó en septiembre pero que en las anteriores sesiones no se permitió su deliberación, presenta la moción:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga considera la Estación de Cercanías de Astigarraga como estratégica y solicita que el proyecto se elabore, apruebe y materialice en un plazo breve.

2. Para ello, el Pleno del Ayuntamiento considera necesario que la nueva Estación de Cercanías se lleve a cabo al mismo tiempo que el tramo Hernani-Astigarraga del TAV.

3. Solicitamos a ETS y a ADIF que especifiquen cuál es la situación de la Estación de Cercanías.

4. Solicitamos a ETS y a ADIF que apuesten de verdad para que la Estación se convierta en realidad y se comprometan



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

ekonomikoa) hartzeko eskatzen diogu.

5.- Astigarragako Udalak Aldiriko Geltokia egin dadin ADIF eta ETSrekin elkarlanean aritzeko prestutasun osoa adierazten du.

6.- Erabaki honen berri Udaleko Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuak sailari, Eusko Lege Biltzarrari, Eusko Jaurlaritzari, ETS eta ADIFI ematea.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, bozeramaile batzordean mozioa aztertu zela, eta herriarentzat estrategikoa denez, hiru taldeen babesa duela. Eta Andoni zinegotziari galdetu dio aurreko legealdian bilerarik egin ote zituzten gaiaren inguruan.

Andoni zinegotziak erantzun dio bizpahiru bilera egin zituztela, eta udal espedienteetan ikus daitekeen bezala, alegazioak ere aurkeztu zituztela. Baina legealdi honetako informaziorik ez dutela, eta mozio aukeztu dutela gaia eztabaidatzeko.

Alkateak azaldu du udal-teknikariekin batera Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin bilerak egin dituztela, eta ETSren bidez ADIFekin hitzordua eskatu arren, oraindik ez dutela lortu bilera egitea.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, mozioaren alde dagoela, udalherriarentzat proiektu estrategiko bat delako, eta ADIFekin hitz egin behar dela, berari dagokiolako proiektua bultzatzea.

Zorionek komentatu du gogoeta bat egin beharko litzatekeela, geltokiaren kokapenaren ingurukoa, noski eskaera hau errespetatuz.

Andoni zinegotziak erantzun dio kokapen posible bakarra dagoela, eta handik udalerrira modu seguru batean etortzeko egin behar direla etxeko lanak.

(humanamente, técnicamente y económicamente) en ello.

5. El Ayuntamiento de Astigarraga muestra su total disposición a colaborar con ADIF y con ETS para que se realice la Estación de Cercanías.

6. Informar de este acuerdo a los departamentos municipales de Urbanismo y de Obras y Servicios, al Parlamento Vasco, al Gobierno Vasco, a ETS y a ADIF.

Toma la palabra la concejala Zorione y señala que la moción se trató en la junta de portavoces, y que al ser algo estratégico para la localidad, cuenta con el apoyo de los tres grupos. Y pregunta al concejal Andoni si en la anterior legislatura celebraron reuniones sobre el tema.

El concejal Andoni le contesta que celebraron dos o tres reuniones, y que, tal y como se puede observar en los expedientes municipales, se presentaron también alegaciones, pero que carecen de información sobre esta legislatura, y que han presentado la moción para que el tema sea debatido.

El alcalde señala que han celebrado reuniones en compañía del técnico municipal con la Diputación y el Gobierno Vasco, y que pese a haber solicitado cita con ADIF por medio de ETS, aún no han logrado celebrar la reunión.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que está a favor de la moción, porque se trata de un proyecto estratégico para el municipio, y que hay que hablar con ADIF, porque es a quien corresponde impulsar el proyecto.

Zorione comenta que debería realizarse una reflexión en torno a la ubicación de la estación, respetando en todo caso esta solicitud.

El concejal Andoni le contesta que sólo existe una única ubicación posible, y que lo que hay que hacer es trabajar sobre forma que se pueda llegar desde allí al núcleo urbano de



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

manera segura.

Jarraian **mozioa** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

A continuación se procede a la votación de la **moción**, que **se aprueba por unanimidad**.

18.- EHBilduren mozioa: astigarragarren etorkizunaren aldeko hainbat ekimen bideratzeko.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza eta azken horrek adierazi du mozioa irailan aurkeztu zutela, baina aurreko bi bileretan ez zela utzi eztabaidatzen, eta oraingoan ere ez zela ekarri nahi, baina udal-idazkariak abenduaren 4rako ekarri behar zela esan ondoren, ekartzea erabaki dela, hau da legeak horrela agintzen duelako ekarri dela.

Eta bozeramaile batzordean mozioa puntu puntu bozkatzea erabaki zela argitu eta mozio aurkeztu izanaren arrazoiak azaldu ondoren, mozioa aurkeztu du:

1.- *Urumea Berrin Udalak jasoko duen 800 m² inguruko lokalean haurreskola behinbetikoz kokatzea 2018an martxan izan dadin.*

2.- *Brigadaren lokala poligonoko pabilioi batera mugiaraztea legealdia amaitu baino lehen.*

3.- *2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan 150.000 €ko urteroko inbertsioa gauzatzea herri-bideak hobetzeko.*

4.- *Erabaki honen berri Udaleko Hezkuntza eta Obrak eta Zerbitzuak sailei ematea.*

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, 3 proiektuak oinarritzekoak eta estrategikoak direla. Eta haur eskolarenaren inguruan, gaineratu du proposamen hau beste batzuk baino egokiagoa ikusten duela, lurraren

18.- Moción de EHBildu: llevar a cabo iniciativas para el futuro de los astigarragararras.

El alcalde le cede la palabra al concejal Andoni el cual, señala que la moción se presentó en septiembre pero que en las anteriores sesiones no se permitió su deliberación, e indica que se ha traído a esta sesión tras señalar la Secretaria Municipal que había que tratarla antes del 4 de diciembre, es decir, que si se ha traído es porque lo exige la ley.

Señala que en la junta de portavoces se acordó votar la moción punto por punto, y a continuación da las razones por las que han presentado la moción y presenta la misma:

1.- *Ubicar definitivamente la escuela infantil en el local de aproximadamente 800 m² que va a recibir el Ayuntamiento en Urumea Berri, a fin de que la escuela esté en funcionamiento en 2018.*

2.- *Trasladar el local de la Brigada a un pabellón del polígono antes de que finalice la legislatura.*

3.- *Llevar a cabo una inversión de 150.000 euros durante los años 2016, 2017, 2018 y 2019 para la mejora de viales públicos.*

4.- *Informar de este acuerdo a los departamentos municipales de Educación y de Obras y Servicios.*

Toma la palabra el concejal Mikel e indica que los tres proyectos son básicos y estratégicos. Y en torno a la escuela infantil, añade que ve esta propuesta más adecuada que otras, ya que al estar a ras de suelo, asegura la accesibilidad



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

arrasean dagoenez, irisgarritasun unibertsala bermatzen duelako, beste kokapen batzuek lortzen ez dutena.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta proposamenak banan-banan aztertu ditu. Herri bideentzako inbertsioari dagokionez, EHBilduko kideei aurpegiratu die aurreko legealdian egin ez zena, orain egin nahi izatea. Brigadaren lokalaren kasuan berdina aipatu du, eta horrez gain, azaldu du 2017rako – eta Zarkumendegi industrialdea garatu bitartean – aurrekontuan 24.000 euro aurreikusi direla lokal bat alokatzeko. Eta bukatzeko, haur eskolaren inguruko proposamenari dagokionez, aipatu du batetik, proiektu estrategikoa eta bereziki babestu beharrekoa dela, baina txosten teknikorik gabe aurkeztu dela; bigarrenik, tendentzia izenemateak gutxitzearena dela, eta hori egiaztatzeko 2011 urtetik egunera izenematearen bilakaeraren berri eman du (2011n 22 haur kanpo gelditu ziren; 2012an, 8; 2013an 3; 2014tik hona denak onartu dira eta azken urtean plaza libreak ere egon dira); eta azkenik, gogoeta egin beharko litzatekeela zerbitzuaren inguruan: zerbitzua bera, ordutegia, beharrak...

Andoni zinegotziak erantzun dio aurreko urteetako daturik ez dagoela, jasotzen ez zirelako. Bestalde, adierazi du batetik, 400 etxe gehiago eraikiko direla eta horrek herritar gazteak erakarriko dituela; bigarrenik, gaur egun haur eskola 2 lokaletan banatuta dagoela, eta egokiagoa litzatekeela dena batera egotea; hirugarrenik, aurreko gobernu taldea kritikatu dela haur eskolaren bigarren lokala egokitzeagatik, hau da, behin betiko obran 60.000 € gastatzeagatik, baina obraren zenbatekoa aurrekontuaren %0,07a dela; laugarrenik, gaur egun haur eskolak guztira 600 m²ko azalera duela eta haurrak pilatuta daudela; eta azkenik, udal gobernu taldeak haur eskolarentzat egindako proposamenak ere ez duela txosten teknikoren babesik.

Bestetik, Ainara zinegotziak erantzun dio gaur

universal, algo que no se consigue con otras ubicaciones.

Toma la palabra la concejala Zorione y analiza las propuestas individualmente. Respecto a la inversión en viales rústicos, reprocha a los miembros de EHBildu que quieran hacer ahora lo que no hicieron en la anterior legislatura. Señala lo mismo en el caso del local de la brigada, y además de eso, expone que para 2017 –y hasta que se desarrolle el polígono de Zarkumendegi– se han previsto 24.000 euros en el presupuesto para alquilar un local. Y respecto a la propuesta en torno a la escuela infantil, señala, por una parte, que el proyecto es estratégico y debe estar sujeto a especial protección, pero que ha sido presentado sin informe técnico; en segundo lugar, que la tendencia es la de disminución de inscripciones, y para acreditarlo da cuenta del desarrollo de las inscripciones desde el año 2011 hasta hoy en día (en 2011 quedaron fuera 22 niñas y niños; en 2012, 8; desde 2014 hasta hoy han sido admitidos todas y todos, y en el último año incluso ha habido plazas libres); y por último, que habría que realizar una reflexión en torno al servicio: el propio servicio, el horario, las necesidades...

El concejal Andoni le contesta que no hay datos de años anteriores porque no se recogían. Por otra parte, señala, en primer lugar, que se van a construir más de 400 viviendas y que eso atraerá a jóvenes: en segundo lugar, que la escuela infantil actualmente está dividida en dos locales, y que sería más conveniente que estuviera todo junto; en tercer lugar, que se ha criticado al anterior equipo de gobierno por acondicionar el segundo local de la escuela infantil, es decir, por gastar 60.000 € en la obra definitiva, pero que la cuantía de la obra supone el 0,07% del presupuesto; en cuarto lugar, que la escuela infantil cuenta en la actualidad con una superficie de 600 m² y que las niñas y los niños están amontonados; y por último, que la propuesta realizada para la escuela infantil por el equipo de gobierno municipal tampoco cuenta con ningún informe



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

egun haurrak kalean ez badira gelditzen, haur eskolak egun 2 lokal dituelako dela, eta jaioberrien kopurua herrian handitzen doala eta leku arazoak aurreikusi egin behar direla.

Bizilagun batek hartu du hitza eta adierazi du haur eskolak egun dituen lokalak egoera txarrean daudela, eta lokal berriaren inguruan dauden bi aukeretatik Urumea Berrin kokatzearena hobeto iruditzen zaiela arrazoi hauengatik: ikastolatik gertuago dagoelako, irisgarritasun hobea duelako, solairu bakar batean dagoelako, eta lokal berria egokitzeko epea zehaztuta daudelako (kultur etxe zaharretik Sagardoetxea atera arte ezin da kokatu). Eta bukatzeko adierazi du egun gutxi batzuetan haur eskola Urumea Berrin jartzearen alde 120 sinadura jaso dituztela.

Beste bizilagun batek komentatu du, Zorione zinegotziak datuak bakarrik emateak, zerbitzu publikoaren alde ez egotea dela.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta berriro ere adierazi du gai estrategiko bat dela, herria handitzen dagoela, etxe berriak eraikitzen direla eta horrek jende gaztea dakarrela. Eta horregatik beharrezkoa dela lokala egokitzea eta exekuzio epeak zehaztea.

Zorione zinegotziak erantzun du bere taldearen nahia ez dela gaia oztopatzea, ikusten dituzten eragozpenen berri ematea baizik. Era berean, komentatu du Haurreskolak Partzuergoak ongi ikusia eman ziola egungo kultur etxeko eraikinean haur eskola jartzeari, eta zerbitzu guztiak Urumea Berri inguruan jarriz gero, grabitate zentro guztia hara eramango litzatekeela, eta herriko puntu guztietan familiak egotea ona dela.

Bizilagun batek haur eskola batek grabitate zentroa lekuz aldatzeko ahalmena izatea, zalantzan jarri du.

técnico.

Por otra parte, la concejala Ainara le contesta que si hoy en día las niñas y niños no se quedan en la calle, es porque la escuela infantil cuenta actualmente con 2 locales, y que al ir aumentando el número de recién nacidos en la localidad, hay que ir previendo problemas de espacio.

Toma la palabra una vecina y manifiesta que los locales con los que cuenta actualmente la escuela infantil están en malas condiciones, y que de las dos opciones existentes en sobre el nuevo local les parece mejor la idea de ubicarlo en Urumea Berri, por las siguientes razones: se encuentra más cerca de la ikastola, cuenta con mejor accesibilidad, se ubica en una única planta y tiene determinado el plazo de acondicionamiento del nuevo local (en la casa de cultura no se puede ubicar hasta que la Sagardoetxea salga de allí). Y para concluir, indica que en unos pocos días han recogido 120 firmas para instalar la escuela infantil en Urumea Berri.

Otra vecina comenta que el hecho de que la concejala Zorione facilite sólo datos, supone no estar a favor del servicio público.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala de nuevo que se trata de un tema estratégico, que la localidad está creciendo, que se construyen nuevas casas y que eso atrae a la gente joven, siendo por eso necesario acondicionar el local y determinar los plazos de ejecución.

La concejala Zorione contesta que no es deseo de su grupo obstaculizar el tema, sino dar cuenta de las dificultades que ven. Asimismo, comenta que el Consorcio Haurreskolak dio el visto bueno a instalar la escuela infantil en el edificio de la casa de cultura, y que si todos los servicios se ubicaran en torno a Urumea Berri, todo el centro de gravedad se trasladaría allí, y que es bueno que haya familias en todos los puntos de la localidad.

Una vecina cuestiona que una escuela infantil tenga la capacidad de cambiar de sitio el centro



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Andoni zinegotziak adierazi du hirigunearen kokapena denen kezka dela, baina hori PGOUa onartzearen ondorioa dela. Bestetik, adierazi du partzuergoak ere begi onez ikusi zuela behin behineko lokala, eta pentsatzen duela proposatutako lokalari ere ongi ikusia emango diotela. Bukatzeko, adierazi du badakiela lokal berria egokitzeak inbertsio bat dakarrela, baina kultur etxea egokitzeak ere gastua dakarrela.

Bizilagun batek galdetu dio Zorione zinegotziari hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuta aztertu den kultur etxearen eraikina.

Beste bizilagun batek udal taldearen hezkuntza-proiektua zein den galdetu du, eta Zorione zinegotziak adierazi duenean gaur egun haur eskola pribatu bat ere dagoela; bizilagunak udal gobernu taldeari leporatu dio legea betetzen dutela adieraziz aski dutela, eta gaineratu du herria asko handiko dela eta hori kontuan hartu behar dela.

Zorione zinegotziak erantzun du EHBildu beti PGOUren kontra dagoela, baina horri esker ikastola handitzeko aukera egon zela. Bestetik adierazi du, haur eskolaren beharrak aztertu behar direla, egun ez baitago leku arazorik.

Parte hartu duen azken bizilagunak, berriro ere galdetu du udal gobernu taldeko hezkuntza-proiektua zein den. Zorione zinegotziak erantzun dio haur eskolaren beharrak aztertu egin behar direla, udalak errekursoak optimizatu egin behar dituelako, eta egungo zerbitzua nahiko dela. Eta bizilagunak berriz hezkuntza-proiektuaz galdetzean, zinegotziak erantzun dio haur eskola ez dela hezkuntza gaia eta eskaera idatziz egiteko.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du 0-3 urte bitartekoa derrigorrezkoa ez izan arren

de gravedad.

El concejal Andoni señala que la ubicación del centro urbano es una preocupación común, pero que es consecuencia de la aprobación del PGOU. Por otra parte, señala que el consorcio vio también con buenos ojos el local provisional, y que creen que también dará su visto bueno al local propuesto. Para concluir, señala que ya sabe que el acondicionamiento del local conlleva una inversión, pero que el acondicionamiento de la casa de cultura también conlleva un gasto.

Una vecina pregunta a la concejala Zorione si se ha analizado desde el punto de vista educativo el edificio de la casa de cultura.

Otro vecino pregunta cuál es el proyecto educativo del equipo municipal, y la concejala Zorione indica que en la actualidad existe también una escuela infantil privada; el vecino reprocha al equipo de gobierno municipal que les basta con afirmar que ellos cumplen la ley, y añade que la localidad va a crecer mucho y que eso tiene que ser tenido en cuenta.

La concejala Zorione contesta que EHBildu está siempre contra el PGOU, pero que gracias a al mismo se pudo ampliar la ikastola. Por otra parte, manifiesta que hay que analizar las necesidades de la escuela infantil, dado que actualmente no hay problemas de sitio.

El último vecino interviniente ha vuelto a preguntar cuál es el proyecto educativo del equipo de gobierno municipal. La concejala Zorione le responde que se deben analizar las necesidades de la escuela infantil, porque el ayuntamiento debe optimizar los recursos, y que el actual servicio ya es suficiente. Y al preguntar de nuevo el vecino sobre el proyecto educativo, la concejala le contesta que la escuela infantil no se trata en sí de un tema educativo y que haga la solicitud por escrito.

Toma la palabra el concejal Mikel e indica que aunque la enseñanza de 0-3 años no es obligatoria, sí es un tema educativo, y que la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

hezkuntza dela, eta eskola publikoa lokal egokian jarri behar dela. Jarraian, mozioa bozkatzera pasatzea eskatu du.

Mozioa puntuz puntu bozkatu da, eta emaitza honako hau izan da:

- **1. puntua onartu** egin dira, **aldeko 7 botoekin** (EHBilduren kideen 6 eta Euskadiko Sozialistaren kidearena) **eta kontrako 6 botoekin** (EAJ-PNV taldeko kideena).
- **2. puntua onartu** egin dira, **aldeko 7 botoekin** (EHBilduren kideen 6 eta Euskadiko Sozialistaren kidearena) **eta 6 abstentzioekin** (EAJ-PNV taldeko kideena).
- **3. puntua onartu** egin dira, **aldeko 7 botoekin** (EHBilduren kideen 6 eta Euskadiko Sozialistaren kidearena) **eta 6 abstentzioekin** (EAJ-PNV taldeko kideena).

19.- EAJ-PNV taldearen mozioa: 4591/10 kereilari babesa emateko.

Alkateak Zorione zinegotziari pasa dio hitza. Horrek adierazi du bere taldeak aurkeztutako mozioa Batzar Nagusiak onartutako dela eta jarraian mozioa aurkeztu du, onartua izan dadin:

1.- *Astigarragako udalak onartzen du gure lurralde historikoaren frankismoaren biktimekiko, Argentinako jurisdikzioan irekitako prozeduran akusazio gisa aurkeztu daitezela.*

2.- *Astigarragako udalak onartzen du Estatu espainoleko epaitegietan ekimen judizialak irekitzeko aukerak ahalbidetzea, gure lurralde historikoan diktadura frankistak eragindako gizateriaren kontrako krimenetatik erator daitezkeen erantzukizun penal eta legezkiokoen beste edozein erantzukizun argituak izan daitezen.*

escuela pública debe alojarse en un local adecuado. A continuación, solicita que se proceda a votar la moción.

Se vota la moción por puntos, con el siguiente resultado:

- se aprueba el punto 1, con 7 votos a favor (6 de los miembros de EHBildu y 1 del miembro de Socialistas Vascos) y 6 en contra (de los miembros del grupo EAJ-PNV).
- se aprueba el punto 2, con 7 votos a favor (6 de los miembros de EHBildu y 1 del miembro de Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (de los miembros del grupo EAJ-PNV).
- se aprueba el punto 3, con 7 votos a favor (6 de los miembros de EHBildu y 1 del miembro de Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (de los miembros del grupo EAJ-PNV).

19.- Moción de EAJ-PNV: apoyo a la querrela 4591/10.

El alcalde le cede la palabra a la concejal Zorione, que señala que la moción presentada por su partido, es la que se aprobó en las Juntas Generales. A continuación presenta, para su aprobación, la moción:

1.- *El ayuntamiento de Astigarraga aprueba presentarse como acusación en el procedimiento incoado en la jurisdicción argentina respecto a las víctimas del franquismo de nuestro Territorio Histórico.*

2.- *El ayuntamiento de Astigarraga aprueba posibilitar que se abran en los juzgados del Estado Español iniciativas judiciales para el esclarecimiento de responsabilidades penales o del tipo que procedan por crímenes contra la humanidad cometidos por la dictadura franquista en nuestro Territorio Histórico.*



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

3.- *Astigarragako udaleko Osoko Bilkurak bitartekoak erraztuko ditu prozedura penalera geure lurralde historikoko frankismoaren biktimen dokumentazio, testigantza eta proba oro atxikitzeko, frankismoaren zapalkuntza guztien zentsu ahalik eta osatuena landu ahal izan dadin.*

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi mozio honen alde bozkatuko duela, eta baita jarraian datorrenaren alde, horrelakoak beti salatuko dituztelako. Bestetik, komentatu du udal aurrekontuei emendakina aurkeztu ziola azterlan eta liburu bat idazteko beka bat antolatzeke asmoz.

Jarraian **mozioa** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez** onartu da.

20.- EHBildu taldearen mozioa: 4591/10 kereilari babesa emateko.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza. Horrek azaldu du bere taldearen mozio hau aurreko legealditik berreskuratu dutela, orduan Moldatu taldeak aurkeztu zuela eta egin duten aldaketa bakarra, 7. puntua gehitzea izan dela. Azaldu du orduan H1 taldeak pleno aretotik atera zela, eta EAJ-PNV taldea, berriz, abstenitu egin zela. Jarraian mozioa aurkeztu du:

1.- *Astigarragako Udaletxeak 1931an bide onez burututako Errepublika eta bereziki Gobernu espainol, katalan, galego eta euskaldunaren aurka 1936ko uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.*

2.- *Astigarragako Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, 40 urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuagatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia*

3.- *El Pleno del ayuntamiento de Astigarraga facilitará los medios oportunos para que se adjunte al procedimiento penal toda documentación, testimonio y prueba de víctimas del franquismo de nuestro Territorio Histórico, para que se elabore el censo más amplio y completo posible de todas las opresiones del franquismo.*

Toma la palabra el concejal Mikel y manifiesta que votará a favor de esta moción y también a favor de la que viene a continuación, porque siempre denunciarán casos así. Por otra parte, comenta que presentó una enmienda a los presupuestos municipales a fin de organizar una beca para realizar un estudio y redactar un libro.

A continuación se procede a la votación de la **moción**, que **se aprueba por unanimidad**.

20.- Moción de EHBildu: apoyo a la querrela 4591/10,

El alcalde le cede la palabra al concejal Andoni, el cual explica que la moción presentada por su partido la han recuperado de la legislatura anterior, que entonces la presentó el grupo Moldatu y ahora únicamente han incluido el punto 7. Comenta, además, que en aquella ocasión el grupo H1 abandonó la sala y EAJ-PNV se abstuyó. A continuación presenta la moción:

